

LABORAL KUTXAKO KONTSEILU ERREKTORERAKO KIDEAK IZENDATZEA. 2025ko BATZAR NAGUSIA

Caja Laboral Popular, Coop. de Créditoren —aurrerantzean, Laboral Kutxa— Kontseilu Errektoreak, 2024eko irailaren 27ean egindako ohiko bileran, kontseilariak berritzeko hauteskunde-prozesua abian jartzea erabaki zuen. Prozesu hori 2025ko Ohiko Batzar Orokorrean egin behar da.

Hautagai izan nahi duten bazkideek eskaera-idazki bat bidali beharko dute Kontseilariak Hautatzeko eta Ebaluatzen arduradunaren arretara, comitenombramientos@laboralkutxa.com helbide elektronikora, 2025ko Batzar Nagusian hautatuko den Kontseilu Errektorean parte hartu nahi dutela adieraziz eta, era berean, bete dezaten bidaliko zaien inskripzio-inprimakia eskatuz, hori baita hautagaitzara sartzeko ezinbesteko baldintza.

Hautagaien lehen zerrendako partaide izateko inprimakia aurkezteko epea **2024ko azaroaren 8an** hasi eta **2024ko abenduaren 31n** amaituko da.

Onartutako hautagaiek egokitasun-azterketa bi gainditu beharko dituzte: lehenik, barruko irizpideen arabera eta, bigarrenik, Espainiako Bankuarena. Indarrean dagoen arautegia eta LABORAL Kutxako Kontseilariak eta Funtsezko Pertsonala Hautatzeko eta Egokitasuna Ebaluatzen Prozedura Gidaliburuan ezarritako irizpideak bete beharko dira.

Álvaro Santxa Vázquez
Kontseilu Errektoreko Idazkaria
Arrasaten, 2024ko urriaren 23an

Datu Pertsonalak Babesteko 1999ko abenduaren 13ko 15/1999 Legean —aurrerantzean, LOPD— jasotakoari jarraiki, CAJA LABORAL POPULAR, Coop. de Créditok jakinarazten dizu, karguak berritzeko prozesu honetan zuk emandako datuak CAJA LABORAL POPULAR, Coop. de Créditoren jabetzako fitxategi batean gordeko direla, Caja Laboral Popularreko Kontseilu Errektoreko hautagai-zerrendako kide izateko eskabidea tramitatzen.

Datuak bidaltzen badituzu, berariazko baimena ematen duzu datu horiek aurreko paragrafoan adierazi den helbururako erabiltzeko.

Alabaina, eskubidea izango duzu, datuak ikusteko, aldatzeko, ezabatzen eta aurka egiteko. Horretarako, nahikoa duzu CAJA LABORAL POPULAR, Coop. de Créditori idazki bat bidaltzea, J. M. Arizmendiarieta pasealekua, zk.g., 20500 Arrasate helbidera edo comitenombramientos@laboralkutxa.com helbide elektronikora.